BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

884

EBAZPENA, 2014ko otsailaren 4koa, Justizia Administrazioko zuzendariarena, Vitoria-Gasteizko bulego judizialeko eta Arabako Probintzia Auzitegiko Zerbitzu Erkide Prozesal Orokorra eta Vitoria-Gasteizko bulego judizialeko Betearazpeneko Zerbitzu Erkide Prozesala zein egunetan jarriko diren funtzionamenduan zehazten duena.

Vitoria-Gasteizko bulego judizialeko eta Arabako Probintzia Auzitegiko Zerbitzu Erkide Prozesal Orokorra eta Vitoria-Gasteizko bulego judizialeko Betearazpeneko Zerbitzu Erkide Prozesala sortzea onartzen duen Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren 2012ko urriaren 19ko Aginduaren Azken Xedapenetako Lehenengoak ezartzen du zerbitzu horiek funtzionamenduan jarriko direla barruti judizial horretako langileak egokitzeko prozesua amaitzen denean.

Egokitzapen-prozesua Justizia Administrazioko zuzendariaren 2013ko urriaren 18ko Ebazpenaren bidez ebatzi ondoren, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Vitoria-Gasteizko bulego judizialeko eta Arabako Probintzia Auzitegiko Zerbitzu Erkide Prozesal Orokorra eta Vitoria-Gasteizko bulego judizialeko Betearazpeneko Zerbitzu Erkide Prozesala funtzionamenduan jartzeko eguna 2014ko martxoaren 3a izango da.

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Justiziako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Gora jotzeko errekurtsoa jartzen denetik hiru hilabete pasatzen badira eta ez bada ezer ebatzi, errekurtsoa ez dela onartu ulertuko da, eta administrazioarekiko auzietarako bidea irekiko da.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko otsailaren 4a.

Justizia Administrazioko zuzendaria,
JON ARTURO URIARTE UNZALU.